

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 2a / 591. zenbakia



**SAN MARTZIALAK**  
ERROMERIA DOMEKAN, EGUN OSOZ

UDALA: AURREKONTUAK ONARTU DITU UDALBATZAK /4 • ELKARRIZKETA: EDU MURUAMENDIARAZ /13

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA: EDU MENDIBIL



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 2**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05
- ZAPATUA, 3**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- DOMEKA, 4**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63
- ASTELEHENA, 5**  
MOZOS. Iparragirre 2. .... 943 76 12 15
- MARTITZENA, 6**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74
- EGUAZTENA, 7**  
ZABALA. Barrenkalea 25. .... 943 76 16 87
- EGUENA, 8**  
GUALLAR. San Antonio 5. .... 943 76 11 05

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) .... 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa. .... 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa. .... 943 76 62 46
- Ertzaintza. .... 943 53 47 20
- Osasun etxea. .... 943 76 24 40
- Asepeyo. .... 943 76 16 43
- Pakea. .... 943 76 13 49
- Angiozarko medikua. .... 943 78 90 27
- Antzuolako medikua. .... 943 76 62 23
- Odol emaleak. .... 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak. .... 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak. .... 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea. .... 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea. .... 943 76 62 46
- Udal Artxiboa. .... 943 77 91 32
- Igerilekuak. .... 943 76 20 51
- Kultura etxea. .... 943 77 91 58
- Liburutegia. .... 943 77 91 62
- Kiriolegia. .... 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza. .... 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia. .... 943 76 14 92
- Erregistroa. .... 943 76 13 15
- Jardun. .... 943 76 36 61
- Idolaz. .... 943 76 65 08
- Erretiratuaren etxea, Bergara. .... 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuaren elk. .... 943 76 62 71
- Postetxea. .... 943 76 26 85
- Bedelkar. .... 943 76 04 68
- Akulu AEK. .... 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia. .... 943 76 44 53
- Bergarako notariotza. .... 943 76 10 73

**MEZAK**

- |  |  |
|--|--|
| <b>San Pedro</b><br>Domekak:<br>09:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak:<br>19:00. | <b>Labegaraieta</b><br>Domekak: 11:00.<br><b>San Lorenzo</b><br>Zapatuak: 20:00.<br><b>Angiozar</b><br>Domekak: 11:00. |
| <b>Santa Marina</b><br>Zapatuak:<br>19:00.<br>Domekak:<br>13:00.               | <b>Moja Zaharrak</b><br>Lanegunak: 08:00.<br><b>Mizpirualde</b><br>Lanegunak: 11:45.<br>Zapatuak: 17:30.               |
| <b>Sierbak</b><br>Lanegunak: 19:30   | <b>Antzuola</b><br>Domekak:<br>10:00, 11:30.<br>Zapatuak eta<br>lanegunak: 19:30.                                      |
| <b>Osintxu</b><br>Domekak: 12:00.  | <b>Uzarraga</b><br>Domekak: 10:00.   |
| <b>Elosu</b><br>Domekak: 11:00.  | <b>Elgeta</b><br>Lanegunak: 09:00.<br>Zapatuak: 19:30.<br>Domekak: 12:00.  |
| <b>Ubera</b><br>Domekak: 10:30.  |  |
| <b>San Juan</b><br>Domekak: 11:00.   |  |
| <b>Elorregi</b><br>Domekak: 10:30.   |  |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean.

**OHARRAK**

**ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN**  
Hurrengo odol ateratzea eguaztenean, uztailaren 7an, izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita. Uztaileko azken odol ateratzea hilaren 21ean egingo da, ordu eta toki berean.

**TXIRRINDU-ZALEEN IRTEERA ZALLARA UZTAILAREN 10EAN**  
Bergarako Txirrindulari Elkarteak uztailaren 10erako irteera iragarri du. Herriko txirrindu-zaleak Zallara joango dira, 80 kilometro inguruko ibilbidea eginda. Itzulera, berriz, autobusean egingo dute. Irteeran parte hartzeko, Ciclos i2 edo Biciprecision Igartua dendetan eman dezakezue izena.

**GAZTETXOENDAKO MARGOLAN IKASTAROKAK**  
Beart elkarteak gaztetxoendako margolan ikastaroa antolatuta du uztailerako. Eskolak aste barruan izango dira, 10:00etatik 12:00etara. Argibideak, honako zenbakiotan: 653 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75 (Oihana) edo 635 71 32 69 (Maite).

**JARDUNEN AGENDA**

**IGELAREN BANDA EGUENEAN POL-POL TABERNAN**  
Kultur Errotaren programazioaren barne, Igelaren Banda taldearen kontzertua izango da datorren egunean, uztailaren 8an, Pol-Pol tabernan, 22:00etan. Sarrera doanekoa izango da.

**KANTU LIBURUKAK BI EUROTAN SALGAI**  
Euskal kantuen liburuxkak kaleratu ditu Jardunek. Liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, Errotalden, bi euroren truke. Jarduneko bulegoko telefonoa: 943 76 08 19.


**URBANOEN ORDUTEGIA**

- San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta / Olibarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTE BERRIGARAN**


**Justo Garate hil zen Mendozan, Argentinan**

Justo Garate bergarar mediku ospetsua hil zen 1994ko uztailaren 2an, Argentinako Mendoza hirian. 1900. urtean jaio zen Bergaran eta 1937an alde egin zuen Argentinara. Mendozako Unibertsitatean Patologia Kliniko katedra lortu zuen. Bergarako Udalak seme kutun izendatu zuen Garate.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Kakotu"*



Pertsona okertu, zahardadea edo.  
— Petra ikusi dot kalian eta ziero kakotuta dago.

GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Martitzena, 29 **12 °C**

**MAXIMOA**  
Zapatua, 26 **35 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>)**  
**2,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	23 °C	14 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 24	28 °C	14 °C	1,2 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 25	28 °C	17 °C	- l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 26	35 °C	15 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 27	28 °C	15 °C	0,9 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 28	24 °C	17 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 29	28 °C	12 °C	- l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

**GOGORATZEKO**

**MARGOLAN ERAKUSKETA**

Beart elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen dutenen erakusketa ikusgai dago kultura etxean, zapatua bitartean. Ricardo Azkargortaren 25 ikasle hartzen dute parte erakusketan. Azkenaldian egindako lanak jarri dituzte ikusgai, olioak gehienak. Paisaiak dira nagusi zintzilikatutako lanetan. Bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik Errotaldeko erakusketa aretoa.



Musika eta liburuak

**bilintx**

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52  
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com



## ATREBENTZIAEZPADA/ Dena gertu daukazue domekarako, San Martzialgo erromeriarako?



**MAITANE AZKARATE**  
20 urte




**ROBERTO NIETO**  
40 urte



**AGUSTIN ALBIZU**  
63 urte



**ITXARO ARANTZABAL**  
23 urte



**GORKA INURRIETA**  
18 urte



**ALBERTO LAZPIUR**  
56 urte

Bueno, tokia hartuta daukagu eta Udaleko mahaiak alokatuko ditugu. Hamar bat lagun elkartuko gara. Bazkaria aurreko urteotan geuk prestatu izan dugu. Giro polita egoten da, bai.

Aspaldian ez gara igo lagunok. Gauzak konplikatuz doaz adin batetik aurrera: umeekin-eta oso zaila da antolatzea. Lehen bai, parranda onak egin ditugu San Martzialen...

Bihotzetik operatu nindutenetik laga egin nion San Martzialera joateari. Mozkorren patroia da San Martzial: *peligro* handia beraz. Nahiago dut beste norabait joan egun horretan.

Oraindik ez dugu ezer egin. Dena dela, mahaiak guk geuk egiteko asmoa dugu, fidantzarekin-eta oso garesti irteten delako. Koadrila handia elkartzen gara; bazkaria enkargatu egiten dugu.

Aurten ez dakit zer egingo dugun, ez dakigu mahaiak alokatu edo ez. Aurreko urtean 30 lagun elkartu ginen. Oilasko batzuk eram genituen, eta ondo. Giro ederra egoten da.

Eguaztenean San Martzial eguna ospatu genuen lagunartean, iluntzean, eta domekan bueltatxo bat emango dugu. Eguerdipar- tean zer giro dagoen ikusi eta etxera buelta.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK SAN MARTZIAL ZAINTZEN EZ DUTENEI** Emakume batek deitu digu aste honetan, haserre-haserre. San Martzialgo erromeria hurbiltzen ari dela-eta, jendeari San Martzial ingurua zaintzeko eskatu nahi dio. Inguruan bizi da emakumea, eta esan digunez, lotsagarria da zein egoeratan geratzen diren hango zelaiak erromeriararen ostean. "Txukuntasunez ondo pasatzea ez da horren zaila", dio. /E.M.

### ETABARRUAN...

<p>ASTEKO /5</p> <p><b>Etkez etxeko zerbitzua</b></p> <p>Etkez etxeko zerbitzuko langileek aste beteko greba hasi zuten eguaz- tenean.</p>	<p>KIROLA /8</p> <p><b>Herriko txirrinduzaleak</b></p> <p>Herriko 30 txirrinduzalek hartu zuten parte aurtengo Quebrantahuesos proban.</p>	<p>KULTURA /13</p> <p><b>Kantu emanaldia</b></p> <p>Orfeoia eta Musika Eskolako kantu ikasleek emanaldia egingo dute gaur, Maria- ren Lagundian.</p>
--	--	--

### ASTEKODATUA

# 150

#### MAHAI INGURU ALOKATU DITU UDALAK DOMEKARAKO

Udalak 150 mahai inguru alokatu ditu domekako San Martzialgo erromeriarako. Urtero moduan, herritar mordoa eta kanpotik etorritako bisitari asko elkartuko da San Martzialen.

### BESTEKEESANA

**“Duela berrogeita hamar urte heldu nintzen Azepeitira [Bergararik]. Tindategia geneukan frontoi ondoan. Lantokitik zein etxetik pilota hotsa entzuten nuen eta kirol honetan sartu nintzen, gazteei lagunduz. Ez dakizu zelako poza den Herriarteko Txapelketa irabaztea. Ametsa bete dut”**  
**PATXI AZKARGORTA / Ilunpe pilota klubeko presidentea**  
**‘El Diario Vasco’/02-06-28**

**“Hirugarren partida bukatu eta berehala gizon edadetu bat hurbildu zen pilotari azepeitarrengana, kantxara. Patxi Azkargorta zen, Xabier Azkargorta futbol entrena- tzailearen aita, urteetan eta oraindik Ilunpe pilota klubeko presidente dena. Pozik zegoen gizona, hunkituta”**  
**JOSEBA LEZETA / Kazetaria**  
**‘El Diario Vasco’/02-06-28**

### BERAIEKDIÑO/ Aitziber Azkondo



#### San Martzial taumaturgoa

**E**ta zer da taumaturgo izatea? Ba mirariak eta gauza liluragarriak egiten dituena. Antzina magoei horrela deitzen zieten eta kristautasunean jaungoikoaren boterean laguntzaz mirariak egiten zituzten santuak omen ziren. Horieta bat San Martzial zen. Kristautasunak dio, San Martzial jaio- tzez hebrearra zela eta bizitzez galilea- rra. San Pedrok Jesusen hitza zabaltzeko aukeratu zuela eta Frantziar lurraldeetara iritsita, Limoges-eko lehen gotzain egin zela. Burdeo- setik ere pasa zen. Kanean zehar oin hutsik zebilen, barau egiten zuen egunero ogia jan eta ura edanez eta bere ser- moiak mirariekin laguntzen zituen. Jendea osatzen zuen, eta baita hildakoak berpiztu ere. Horregatik beharbada taumaturgoarena. Jesusi gertatu zitzaion bezalaxe, beti ere bibliaren aburuz, bere aurka zeuden apaizek, tortura- tu, tratu txarrak eman eta

giltzaperatu egin zuten. Halako batean, espetxean zegoela, argi handi eta distiratsu bat zabaldu zen. Kateak berez puskatu ziren. Miraria berriz ere. Kristau ikasbidea zabaltzen jarraitu zuen 59 urte bete eta elizbarrutiko guztiak inguruan zituela hil egin zen arte.

Kristautasunak ekainaren 30a izendatu zuen San Martzial eguna eta iruindarrek, besteak beste, kasualitate hutsez nik dakida- nez, 1522ko ekaina- ren 30ean, armada frantsesa eta alema- niarraren ahalegin konkistatzaileak

zapuztu ondoren, Aldabe mendian ermita kotsakratu zioten San Martzial. Horrela urtero santuari eskerrak emateko mendi igoera egiten dute, Alardearekin batera. Gu ere ez gara gutxiago izango. San Martzial eskertu behar diogu (izan edo ez izan fededun) bergararrantzat bilgune egin den egun zoragarria. Guztiok arazoak ahaztu eta primeran igarotzeko parada izan dugu. Ondo pasa domekan!

**“San Martzial eskertu behar diogu (izan edo ez izan fededun) bergararrantzat bilgune egin den egun zoragarria”**

**Berrigara**

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Aintzane Irizar  
Usoa Agirre  
Irati Agirreazaldeg  
Jon Berezibar  
**MAKETAZIOA**  
Maitena Arana

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura saila    Gipuzkoako Foru Aldundia    Bergarako Udala    Antzuolako Udala    Elgetako Udala



**AURREKONTUAK/** 2003ko aurrekontuarekiko %11ko igoera izan du aurrekontuak: inbertsioetarako 3.123.807 euro bideratuko ditu Udalak

# Udalak 21,8 milioi euroko aurrekontua izango du, EAJ-EA koalizioaren babesarekin

EDU MENDIBIL

EAJ-EA koalizioaren aldeko botoekin aurtengo aurrekontuak onartu zituen udalbatzak astelehenean. Udal gobernuan dagoen Aralar alderdia abstenitu egin zen botazioan. Joan zen urteko aurrekontuarekin konparatuz, %11 egin dute gora aurrekontuek.

Bergarako Udalak 19.785.166 euroko aurrekontua izango du aurtun. Era berean, Mizpirualde egoitza (2.448.692 euro), Udal Euskaltegia (379.061 euro) eta Bergarako Bihargintza SA (1.798.480 euro) erakundeen aurrekontuak ere onartu zituen udalbatzak astelehenean. Esan bezala, 2003ko aurrekontuarekiko, %11ko igoera izan dute aurrekontuek.

Gastuen kasuan, gastu arruntek (pertsonal gastuak, erosketak, interesak eta transferentzi arruntak) hartzen dute aurrekontuko zatirik handiena: 12.882.773 euro.

Inbertsioek hazkunde nabaria izan dute. Iaz 2.351.069 euro bideratu zituzten inbertsioetarako, eta aurtun, berriz, 3.123.807 euro zuzenduko dira. Bihargintzaren bitartez, Agorrosingo kirol gune berrirako 1.777.480 euro bideratuko ditu Udalak.

Bestalde, Udalaren zorpetze maila 15,26 puntuko da gaur.

## ARALARREN ABSTENTZIOA

Aurrekontuen bozketan, Aralar alderdiko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren eta PSE-EEko zinegotziak ezezkoa botoa eman zuten. PP eta Ezker Batuko zinegotziak ez ziren udalbatzan izan.

Iñigo Iñurrategi Aralarreko zinegotziak zera adierazi zuen: "Aurrekontuen prozesu guztian zehar parte hartu dugu batzorde

ezberdinetan eta, oro har, ados gaude aurrekontuarekin. Hala ere, gure iritziz aurrekontu hauek hankamotz geratzen dira. Besteak beste, Udalaren plan ekonomiko-finantzarioa egitea eta inbertsio proiektu nagusienetarako jarraipen plan bat ezartzea eta herritarren parte hartzea bermatzea beharrezkoa ikusten genuen. Hitzeko konpromisoa idatziz jaso eta sinatzea eskatu dugu eta horrela gertatu izan balitz, aurrekontuek gure babesa izango lukete".

Francisco Javier Garai PSE-EEko zinegotziak bere desadostasuna azaldu zuen: "Udalbiltzarako partida kentzea eta kirolguneaz gain, beste proiektu batzuk indartzea beharrezkoa ikusten dugu".

Alkateak Pleno aretoan ziren Bergara Aurrerako ordezkariari ere hitza eman zien. Jesus Mari Garitanoren arabera, gastu arrunta gehiegizkoa zen beraien ustez eta datozen urteetara begira gastuak egoki bideratzeko plan baten falta ere sumatzen dute. Aurrekontuak lantzeko orduan parte hartzerik izan ez dutela ere salatzen Garitanok.



Agorrosingo kirolgunearako 1.700.000 euro inguru bideratuko ditu Udalak.

## 2003rako aurrekontua

**Udala:**  
19.785.166 €

**Mizpirualde egoitza:**  
2.448.692 €

**Udal Euskaltegia:**  
379.061 €

**Bergarako Bihargintza SA:**  
1.798.480 €

**UDAL AURREKONTU OSOA:**  
21.899.961 €

## Udalaren aurrekontua

<b>Gobernazio organoak</b>	528.415 €
<b>Admin., zerbitzuak, udaltzaingoa</b>	6.093.675 €
<b>Kultura zerbitzuak</b>	1.175.312 €
<b>Kirolak</b>	2.708.146 €
<b>Hezkuntza</b>	466.123 €
<b>Taldeak, jaiak</b>	541.422 €
<b>Euskara</b>	625.789 €
<b>Hazienda</b>	2.281.241 €
<b>Gizarte Ongizatea</b>	2.008.143 €
<b>Hirigintza</b>	2.499.827 €
<b>Mendi eta auzoak</b>	857.073 €

## Inbertsio aipagarrienak

<b>Agorrosingo kirolgunea</b>	1.777.480 €
<b>Urbanizazioak</b>	600.000 €
<b>Hirigintza garapenerako lurak</b>	300.000 €
<b>Ur partzuergo saneamenduak</b>	226.524 €
<b>Santa Marinako urbanizazioa</b>	225.600 €
<b>Kultur lokalak</b>	194.950 €
<b>Mankomunitatea</b>	166.710 €
<b>Auzoetako ekipamendua</b>	151.000 €
<b>Herri gunearen zoladura</b>	150.000 €
<b>Baserri bideak eta arekak</b>	150.000 €
<b>Hirigintza proiektuak</b>	140.405 €

## Udal langileen ordezkarien eta alkatearen arteko eztabaida plenoan

E.M.

**Lan hitzarmena dela-eta, asteleheneko udalbatzan eztabaida bizia piztu zen alkatearen eta udal langileen ordezkarien artean. Langileek ordubeteko lanuztea egin zuten martitzenean berriz.**

Udaleko Enpresa Komitearen arabera, udal eta Foru langileen laneko harremanak EUFALEBA hitzarmenak arautu izan ditu azken 20 urteotan. Aurtun, berriz, akordiorik ez zegoela eta, bi urterako lan baldintzak inposatu dizkietela salatu dute langileek.

### NEGOZIAZIO MAHAIA ALDARRIKATUZ

Asteleheneko udalbatzan, udal langileen soldaten taulak onartu ziren, EAJ-EA koalizioaren aldeko botoekin. Aralar alderdiak ezezko botoa eman zuen eta PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen.

Udal langileen izenean, Inazio Azkarragak hitza eskatu zuen: "Udalaren jokaera lotsagarria eta onartezina da. Inposaketa ez da bidea, negoziazioa baizik, eta gehiengo sindikala duten LAB eta ELA sindikatuak negoziazio mahaitik kanpo uztea dekretazioa besterik ez da", adierazi zuen Azkarragak.

Alkateak, berriz, zera erantzun zion: "Ez nago ados lotsagarria bezalako hitzekin, inondik inora. Bestalde, negoziazio mahaia oraindik zabalik dago". Era berean alkateak haserrea azaldu zuen joan den egubakoitzean langileek egindako protestaldiarekin: "Ez da bidezkoa Udalarenak diren ibilgailuak erabiltzea herrian zehar zaratka ibiltzeko. Horren erantzukizuna dutenei kontuak eskatuko dizkiegu".

Aralarrek eta Bergara Aurrerak bat egin zuten udal langileen eskakizunekin asteleheneko udalbatzan.

## LABUR

### Zubieta kalea hilabetez izango da itxita, ur kolektoreko lanak direla-eta

Zubieta kalea itxi zuten ibilgailuendako astelehenean. Udal-tzaingoaren arabera, ur kolektoreko lanak direla-eta, Zubieta hila-betez itxita izango da. Beraz, Masterreka kaletik behera Fraiskozurira jo beharko dute gidariak. San Lorentzotik gora Mugertzaraino bakarrik iritsi ahal izango dira autoak eta Amillagatik herri barrura sartzeko Matxiategitik igaro beharko dira gidariak.

### Gutxitu fisikoendako oporretara joateko eskaintza egin du Cocemfe elkarteak

Estatu mailako Cocemfe elkarteak gutxitu fisikoei zuzendutako oporretarako eskaintza plazaratu du. Hain zuzen ere, Benidorm, Salou, Tenerife, Barcelona edota Arnoia-ko (Ourense) bainuetxean egonaldia izango dira.

Aipatutako egonaldietan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da baldintza batzuk betetzea. Argibideak Udaleko Ongizate Zerbitzuan edo 943 03 77 00 (Gladys) telefono zenbakian.



LANA/ Oraindik ez dute Gizaintza SL enpresako arduradunekin negoziatzerik izan

# Etkez etxeko zerbitzuko langileak, astebetetz greban

E.M.

Etkez etxeko zerbitzuko langileak greban dira eguaztenetik, ekainak 30. Hasiera baten, uztailaren 6ra arte greba egingo dute Bergaran, Gizaintza SL enpresaren bitartez, zerbitzu hori eskaintzen duten 29 langileek.

Langileen ordezkararen arabera, egoera larria da. Oraindik ez dute Gizaintza SL enpresako ordezkariekin eskatutako baldintzak negoziatzerik izan. Besteak beste, hauek dira langileen aldarrikapenak: urteko lan jarduna 21 ordu murriztea (urtean 1.728 orduz lan egitea), soldataren %6,6ko igoera eta aldi baterako ezintasunak ordaintzea enpresak. Gaur egun 29 langilek dihardute etkez etxeko zerbitzuan lanean, Udalak azpi kontratatutako Gizaintza SL enpresaren bitartez hain zuzen.

## AZPI KONTRATUTAKO ZERBITZUA

Elsa Sanchez LAB sindikatuko ordezkariek zera adierazi dio BERRIGARARI: "Badirudi Gizaintza enpresa kolokan dagoela, zorra dezente dituelako. Lazkaon zerbitzu honetan diharduten langileak ere Bergarako antzeko egoeran dira". Martitzenean Gizaintza, Bergarako Udala, langileak eta Jaurilaritzako Lan Saileko ordezkariek biltzekoak ziren, baina Gizaintzako arduradunak



ARTXIBOA

Etkez etxeko zerbitzuko langileek lan baldintzen hobetzea aldarrikatzen dute.

ez ziren bilerara agertu.

Gauzak horrela, arazoari irtenbide zaila ikusten diote langileen ordezkariek. Jasaten dituzten lan baldintzen behin-behinekotasuna salatu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Esplotazio egoera honi bukaera emateko

eskatu zioten alkateari. Honen arabera, Gizaintzak Bergarako Udalarekin sinatutako hitzarmena egoki betetzen duela zaintzea da Udalaren bete beharra.

Udalak eta Gizaintzaren arteko hitzarmena irailean bukatzen da.

# Erraustegia Bergaran jartzeko aukera gutxiago dago

ERREDAKZIOA

Astelehenean hainbat mediotan zabalduko informazioaren arabera, Gipuzkoako erraustegi nagusia kokatzeko hautagaien artean zegoen Bergara. Hala ere, badirudi aipatutako erraustegia ez dela azkenean Aldai auzoan, Angiozarrerako bidean kokatuko.

Atzo, eguna, azken erabakia hartzeko zen Diputazioko Jarraipen Batzordea. Gipuzkoako Aldundiak zazpi Mankomunitatetako ordezkariek bildu ditu, Gipuzkoako erraustegi nagusia non kokatu erabakitzeko. Hasiera baten, bederatzi proposamen ziren mahai gainean, horietako bat Bergarakoa. Antza denez, erraustegia Aldetan, Angiozarko bidean kokatzeko aukera ere aztertu zuten Diputazioko teknikariek. Bergararekin batera, Donostia, Billabona, Urnieta, Usurbil, Zestoa, Ormaiztegi eta Beasain aipatu dituzte hainbat mediotan.

## BESTE AUKERA POSIBLEAK

Hala ere, erraustegia ipintzeko bederatzi kokaleku posibleetatik, Bergara desegokiena da, Diputazioak aditzera emandako balorazioen arabera. Erakundeak dio herri guztiek aukera berdina

dituztela, baina, kokapen guztien puntuz puntu balorazioa egin ondoren, Bergarako oso aukera gutxi dituela ikusten da. Txostenaren arabera, Donostia, Usurbil eta Zubietak dira leku egokienak. Bergarako kokapenaren balorazioari dagokienez, honako datuak aditzera eman dira: iristeko erraztasun ona du eta lurralde egokitasuna ere ona da, baina transferentzia eta garraioaren kostu eta eragina ez hain egoki moduan baloratzen da. Horren alboan, adibidez, Usurbilek, Donostiak eta Zubietak balorazio hobea dute.

Asteleheneko osoko bilkuran gaiak zeresan eman zuten. Errege eta galderetan Jesus Mari Garitano Bergara Aurrerako kideak horren inguruan Udalak zein informazio zuen galdetu zuen: "Abiadura Handiko Trenarekin nahikoa genuen eta orain hau. Azpiegitura erraldoien kontuekin ezkutuan ibiltzea da Diputazioa eta medioen bitartez jakin dugu erraustegiarena. Erraustegia ez dator bat Udalak defenditzen duen garapen iraunkorarekin". Victoriano Gallastegi alkateak zera erantzun zion: "Lehenengo ostiralean, telefonoz, enteratu nintzen gai honetaz eta zera esango dizuet: ni alkate nagoen bitartean ezezko borobila emango diogu erraustegia Bergaran kokatzeari".

# San Antonioko babestutako etxeen notario-eskritura

E.M.

San Antonioko babestutako etxeen bigarren faseko 18 etxebizitzaren notario-eskrituraren sinatze ekitaldia egin zen martitzen goizean Udaleko Gobernu Batzorde gelan. Han izan ziren, besteak, beste, Victoriano Gallastegi alkatea eta etxebizitzaren eraikitzea aurrera eraman duten erakundeetako ordezkariek. Alkateak Udalak egindako esfortzua azpimarratu baitzuen, 901.000 euro inguru bideratu baititu San Antonion etxebizitzak egin ahal izateko.

teko. Era berean, nahiko marjina natuta zegoen inguru hori berreskuratu ahal izateko beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa izan dela adierazi zuen Gallastegi alkateak.

## HIRUGARREN FASEA


San Antonion etxea eskuratu duten Teodoro Diaz eta Helidora Baladronen sinatze ekitaldia egin zuten, notarioaren aurrean.

Hirugarren fase baten, beste 18 etxebizitzak eraikitzeko proiektua dago San Antonion.



## Kalimeroak taldea irabazle Jardun elkarteko Olinpiadetan

Kalimeroak taldea izan da garaile Jardun elkarteko Olinpiadetan. 9-12 urte bitarteko 120 bat neska-mutiko izan dira lehian azken asteotan. Era askotako probak izan dituzte partaideek. Esan bezala, Aranzadi Ikastolako Kalimeroak taldeak lortu du puntuaziorik onena eta Gamarrara egun bateko irteera irabazi dute. Partaide guztien artean kamisetak ere banatu ditu Jardunek.



Martitzeneko sinatze ekitaldia.

E.M.



**JAIK/** Alborada eta gurdi igoeraren ondoren meza izango da ermitan 11:00etan eta eguerdi partean dantzak egongo dira Xamatz taldearen eskutik

# San Martzialgo zelaiak jendez beteko dira domekan, jai giroan erromeria ospatzeko

EDU MENDIBIL

San Martzialgo erromeria ospatuko da domekan. Herritarrek San Martzialgo zelaiak hartuko dituzte goizetik, eta betiko moduan jai giroa izango da nagusi egun osoan. Udalak 250 mahai inguru alokatu ditu domekarako.

Goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak. Alborada 09:30ean izango da eta, 10:00etan, gurdi igoera hasiko da. San Martzialera heldu ondoren, 11:00etan, meza nagusia izango da ermitan. Ohikoa denez, meza eta hamarretakoaren ondoren, ohiko aurrekua egongo dute Xamatz dantza taldeko kideek, 12:00etan. Era berean, bazkal aurretik, Juan Mari Narbaizak eta Jesus Alberdi *Egileor*ek bertsoak eskainiko dituzte eta segidan abesti herrikoiak kantatzeko parada izango da kantina

ondoan.

Arratsaldean, berriz, 16:00etan umeendako jolasak izango dira eta herri jolasak 18:00etan hasiko dira. Txingan edo sokatiran lehiatu nahi direnek egun bertan eman beharko dute izena, 17:00etan. Arantzabal taldeak alaituko du domekako erromeria. Jaitsierako txupinazoa 21:00etan jaurtiko dute.

## AUTOBUS ZERBITZUA

Domekan, San Martzialera joan-etorria autobus zerbitzua doanekoa izango da, 10:30etik 20:00etara. Ezin izango da zelaira autorik sartu, jeneroa eramateko izan ezik. Igoera Santa Marinatik egongo da eta jaitsiera, berriz, Lamainotik behera, Ozaetaraino. Arratsaldean, 15:00etatik aurrera, ezin izango da autorik erabili eta urbano bakarrik ibiliko da. Azkenik, ingurugiroarekin errespetu osoz jokatzeko eskatu dute Udaleko iturriek.



Ohikoa den bezala, eguerdi partean dantza saioak izango dira ermita ondoko zelaietan.




**KARAKOLAK PRESTATZEN** 1972an izan zen azken sukaldaritza lehiaketa. Argazkian, Migel Mendibil, Joseba Sotil, Jabier Mendizabal *Surra* eta Floren Ruiz. Zubiaurreko koadrilak irabazi zuen urte hartako karakol prestatze txapelketa. Bitxikeri bezala kuadrila bera bi aldiz auzetu zen bi plater desberdinekin. Argazkia: Migel Mendibil.



**GAZTE KOADRILA 1974KO ERROMERIAN** Zutik: Ander Gallastegi, Tere Luengo, Jose Menor, Iñaki Mozos, Javi Ugarte, Marga, Agurtzane Zangitu, Belen Muniategi, Roberto Narvaez, Rafa Zabala eta Kike. Jarrita: Ina Gallastegi, Begoña Gallastegi, Pako Insausti, Yolanda Egia, J.M. Retegi, J.R. Oregi, Ester Madariaga, Ikerne Zangitu eta Anton Barrutia. Etxanda: Iñaki Olabarria eta Iñaki San Vicente.

## ASKARIA SAN MARTZIALEN

1963ko irudia da esku-makoa. Bertan, Patxi Larrañaga Jabier Larrañaga bere semearekin eta Maritxu Barrena ilobarekin ikus dezakezue, San Martzial bidean. Antza, San Martzialen askaria (merienda) hartzera joan ziren hirurak. Maritxu Barrenak utzi digu argazkia.



## ITURBEKOAK 'PERIKO'-REKIN

1966ko argazkia. Aurrean: Begoña Iturbe, Elisabeth Gabilondo eta Jabier Iturbe. Atzerago: Bixente Iturbe, Bigen Iturbe (otarrekoa mutikoa), Juanito Berraondo, Mari Karmen Iturbe, Jon Etxabe (erdiko mutikoa), Jesus Etxabe, Encarna Linzoain, Teresa Gabilondo, Joseba Etxabe (beste otarreko mutikoa) eta Justina Gabilondo. Astoak *Periko* izena zuen. Argazkia Begoña Iturberena da.





MINGAINARITIRAKA



Silvana Caviglia

DENTISTA

Hasieran ohituko ez zen beldur zen arren, dagoeneko hamar urte egin ditu Bergaran dentista uruguaiarrak. Bere senarrarekin etorri zen eta bertan izan ditu haurrak. Oso gustura bizi da herrian, eta aurki gurasoak ekarriko ditu.

**Inork ez du dentistarengana joan nahi izaten, hain gaiztoak zarete ala?**

Ezta gutxiago ere. Nik beti esaten dut kafe bat edan dezakegula kontsulta ostean, horren zitalak ez garela erakusteko. Gaur egun ez dago beldurtzeko arrazoirik.

**Hala ere, kontsultan daukazun aparatuek atzera botatzen dute.**

Egia da soinu arraroak ateratzen dituztela makinek, baina ez dira izutzeko bestekoak. Gu pazientea lasaitzen saiatzen gara.

**Nola erabaki zenuen dentista izango zinela?**

Nik, berez, albaiari izan gura nuen, eta hori hasi nintzen ikasten. Geroago piztu zitzaidan interesa, dentista zen bizilagun baten bitartez.

**Errieta asko egiten duzu hortzak behar bezala ez garbitzeagatik?**

Denetarik ikusten da. Umetan erdipurdi garbitzen dituzte eta nagusitxoago egiten direnean hobetzen joaten dira. Nerabeen kasuan, bi muturrak daude: onak eta oso txarrak.

**Pantailako noren irribarrea da politena?**

Julia Robertsen, polita bezain naturala baita.

**Behar besteko garrantzia ematen diogu aho-higieneari?**

Ez, baina gero eta gehiago ematen ari zaio. Estetika kontuagatik bada ere, jendea hasi da konturatzen.

**Zer ekarriko zenuke Uruguaytik Bergarara?**

Inolako zalantza barik hondartza.

**Eta alderantziz, Bergaratik zer eramango zenuke hara?**

Mendia, han ez baitago bat ere. Horretaz gain hemen egin ditudan lagunak eramango nituzke.

**Erraz egin zenituen lagunak Bergaran?**

Uruguain jendea askoz ere irekiagoa da, eta hemen zuk zeuk izan behar duzu irekia jendea ezagutu ahal izateko.

**Aldaketa handia igarri zenuen?**

Kontua da beste herrialde batetik bazatoz ezin zarela hango gauzetara lotuta bizi. Ohiturak gorde egin behar dira, noski, baina integratu beharra dago.

JON BEREZIBAR

BERGARARRAKMUNDUAN

MIGEL MUXIKA

68 URTE / APAIZA / BILBON, SANTUTXUKO AGUSTINDARREN KOMENTUAN DIHARDU

“Hainbat lekutan egon ondoren, Bilbon ere gustura nabil orain, etxetik gertu nago-eta”

JON BEREZIBAR

**A**paiz bokazioa goiz agertu zitzaion Migeli. Izan ere, 15 urte beteta, Oñatiko agustindarren komentura joan zen ikasketak egitera. Oñatin bertan igaro zituen mutiko urteak eta ondoren Filosofia eta Teologia ikasketak egin zituen, zazpi urtez.

Behin ikasketak amaituta, lehen meza 1964an esan zuen, Santa Marina elizan, hain zuzen ere. Handik aurrera gehienbat apaiz lanetan aritu izan da, elizkizunetan eta komentuan bertan, nahiz eta irakasle ere izandakoa den.

Hasierako urte haien ostean Harora joan zen bizi izatera, bertako agustindarren komentura; bizitzako etaparik luzeena egin zuen Errioxan, 15 urtez egon baitzen parrokiaren lanean. Bizitzaldaketa handia izan arren, oso gustura egon zen han. Jendearena da gordetzen duen akordurik onena, “oso jator” portatu baitziren errioxarrak. Haron egindako

*“Haroko sasoiatik gordetzen ditut akordurik onenak. Oso jatorrak dira errioxarrak”*




sasoiak dira kutunenak beretzat. Izan ere, “Haro herri txikia da eta oso lasai bizi dira”. Horregatik, oraindik ere noizean behin itzultzen da Errioxako komentura.

Madrilera joatearekin amaitu zitzaion lasaitasun hura Migeli. 1982an joan zen hirira eta etxe-koetatik urruti egotea egin zitzaion gogorren. Bertan komunitate handiagorekin egin zuen topo, 10 elizgizonek osatzen zuten kongregazioa. Bertan apaiz lanean ibili zen, baina hitzaldi eta doktrina eskolak ere eman zituen. Bizitzako aldaketarik handiena izan zen Madrilerara bizi izatera

joatea. Hala ere, hiri handi baten egon arren lana ez zen larregi aldatu, bere esanetan. Komunitateak antz handia zuen eta beste zortzi euskaldunekin egon zen elkarbizitzan. Gainera, berak aitortu bezala, “azkenean parrokiako familiak ezagutu egiten dituzu eta herri baten modukoa da, harreman estua sortzen da”.


Madrilen hamar urte bizi ostean Euskal Herrira itzuli zen 1992an, Bilboko Santutxu auzora, hain zuzen ere. Gaur egun han jarraitzen du, parrokiako lanean. Bere esanetan, Bilbon hobeto dago, etxera sarriago itzul baitaiteke. Astean behin gutxienez etortzen da Aritzeta baserrira, familia bisitatzera. Kanpoan urte asko egin izan arren, beti hartu du denbora Bergarara itzultzeko. Urterik urte, etxera itzultzean aldaketa asko nabaritu izan ditu Bergaran. Bere ustez asko hobetu da herria azken urteetan. Alde handia ikusten dio Madrilekin konparatuz gero, baina parrokiaren beti egin izan du lan antzerakoa.



-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaiztatu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!  
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



**ARRAÑAGA**

A U T O E S K O L A





Gora Euskadi izan da aurtengo txapelketa.



Mariaren Lagundiko neskatilak.

IPINTZAKO TXAPELKETA

# Gora Euskadi taldeak 2-0 irabazi zion Mariaren Lagundiari Ipintzako neskatilen finalean

Hasieratik hartu zion neurria Gora Euskadik asteleheneko finalari, eta erraz irabazi zuen

JON BEREZIBAR

**Gora Euskadi izan da aurtengo ipintzako neskatilen txapelketako irabazle. Gora Euskadik partidu ona egin zuen eta uste baino errazago nagusi zitzaion Mariaren Lagundiari; 2-0 izan zen emaitza.**

Partidu lehiatsua izan zen neskatilen finalekoa, baina Gora Euskadi irten zen txapelketan azkenean, garbi erakutsi zuen txapelketako talderik onenetakoa izan dela. Mariaren Lagundiak ere joko ona erakutsi zuen, baina

ezin izan zion aurkariari aurre hartu. Ligan nahiko makal hasi zen Gora Euskadi. Talderik onena edukita, lasaitu egin ziren hasieran. Bukaeran hasi ziren jokoa hobetzen eta txapelketari neurria hartu zioten. Finala ere erraz irabazi zuten astelehenean. Mariaren Lagundiak, berriz, ondo jokatu zuen arren ez zuen golik egin. Edozelan ere, Txomintarrak taldearekin batera, erregularrak izan dira bai joko zein emaitza aldetik. Aipatu beharra dago, gainera, Txomintarrak taldea izan dela ligako sailkapenean gol gehien egin dituen taldea.

Ez zuten finalera heltzerik izan, hala ere, eta laugarren geratu dira Txiki Pungen ostean.

Finalistez gain, beraz, Txiki Pung eta Txomintarrak geratu dira 3. eta 4. postuetan. Talde bi horiek finalera heldu ez diren arren, ligako sailkapenean lehen postuak lortu dituzte.

**MAIALEN ARREGI JOKALARI ONENA**

Jokalaririk onenaren saria Txomintarrak taldeko Maialen Arregiri eman diote aurtengo. Golik gehien egin dituen izan ez den arren, taldea aurrera eramateko gaitasuna erakutsi due-

IPINTZAKO TXAPELKETA

**EGUBAKOITZA, 2 (BETERANOAK)**

18:45: 3. eta 4. postuak  
19:45: Finala

**MARTITZENA, 6 (SENIOR MUTILAK)**

19:15: Final laurdena A multzoa - C multzoa  
20:30: Final laurdena B multzoa - C multzoa

**ASTELEHENA, 5 (SENIOR NESKAK)**

19:30: Finalerdiak 1 eta 2  
20:30: Finalerdiak 3 eta 4

**EGUAZTENA, 7 (SENIOR MUTILAK)**

19:15: Final laurdena C multzoa - A multzoa  
20:30: Final laurdena D multzoa - B multzoa

lako nabarmendu dute. Jokalariek golez gain, taldea motibatu eta aurrera eramateko grina ere hartu baitira kontuan. Aurtengo denboraldiari dagokionez, joko ona erakutsi dute taldeek.

Izan ere, aurtengo gogotsu ibili dira neskatilak ipintzako txapelketan. Ilusio eta gogo handiarekin ekin zioten denboraldiari, eta aurtengo oso maila ona erakutsi dute.

## Herriko 30 txirrinduzalek hartu du parte aurtengo Quebrantahuesos proban

J.B

Aurtengo ekainaren 19an egin da txirrinduzaleen proba ezaguna, eta Bergarako 30 lagunek hartu du parte. Herrikoen artean denborarik onena Arkaitz Ruiz de Lozagak egin zuen, 52 postua eskuratuta. Aurkeztu ziren ber-

garar guztietatik bakarrak utzi zuen proba.

**IBILBIDE GOGORRA**

Sabiñanigo inguruetan egiten da proba hori, eta aurtengoan 205 kilometroko luzera izan du. Oso proba ezaguna da txirrinduzaleen artean, eta askok urte osoan

zehar prestatzen dute. Goizeko zortzietan hasi eta hainbat portu igaro behar izan zituzten, horien artean, Somport eta Hoz mendateak. Proba gogorra da beraz. Urtero egiten duten omenaldiari dagokionez, aurtengo Abraham Olano txirrindulari anoetarri egin diote.

FOTOKIROLA



**Txirrinduzaleak Zallara, uztailearen 10ean**

Urtero bezala, aurtengo irteera berezia egingo dute Bergarako txirrinduzaleek: Zallara joango dira uztailearen 10ean, 80 kilometro inguruko ibilbidea eginez. Itzulera, autobusez izango da. Izenematea, 12 eta Igartua dendetan. //JON BEREZIBAR

**Bergararren sailkapena eta denbora**

Postua	Izen-deiturak	Denbora	Postua	Izen-deiturak	Denbora
52	Arkaitz Ruiz de Loizaga Sampedro	6:16:46	2.311	Jose Ignacio Aranburu Murgizu	7:58:52
133	Arkaitz Mendizabal Gorrotxategi	6:26:41	2329	Jesus Sanz Segovia	7:59:16
496	Jose Luis Taboada Ruiz	6:50:01	2407	Oscar Ortiz Rodriguez	8:02:30
621	Iker Herran Hernandez	6:55:47	2902	Jose Ignacio Albisua Iraolaigoitia	8:23:50
1166	Alatz Larrañaga	7:17:02	2909	Jose Luis Pascual Valdevieso	8:24:04
1186	Felix Igarza Iñarra	7:17:47	2912	Jesus Murgizu Arriaran	8:24:08
1357	Iker Osa Alustiza	7:23:29	3246	Jose Gallastegi Oyanguren	8:49:10
1454	Gorka Marzan Altube	7:27:15	3359	Martin Sanchez Gutierrez	8:46:40
1467	Iban Agirrebeña Oteo	7:27:45	3469	Aitor Uribealzo Arando	8:51:44
1515	Garikoitz Arregi Beraza	7:29:29	3710	Antonio Verquizas Nieto	9:05:00
1611	Juan Luis Arregi Gorrotxategi	7:33:02	3716	Felix Alzelaya Mayo	9:05:29
1972	Juan Miguel Hernandez Pozo	7:45:56	3800	Iñaki Acebo Acebo	9:11:00
2098	Ander Garitano Zuazolaigorraga	7:51:11	4648	Jesus Martin Manzanal	11:21:46
2214	Gorka Arrieta Etxeberria	7:55:15	4649	Amaia Echebarriarteun Castelo	11:21:47
2241	Mikel Aristegi Pascual	7:56:07		Pascual Naranjo Caballero	Erretiratuta



# Bergararrek galdu egin zuten Debarroko pilota finala

JON BEREZIBAR

Muguruza-Gutierrez bikoteak ez zuen lortu Debarroko txapela. 22-18 galdu zuten Aretxabaletako Errasti anaien aurka, zapatuan, Eskoriatzan. Partidu luze eta gogorra izan zen arren, aurkariak hasiera-hasieratik hartu zieten aurre bergararrei.

Irabazteko zaila izan zen zapatuko partidua. Izan ere, Errasti anaiak arerio gogorak dira. Sei aldiz iritsi dira finalera aretxabaletarra eta lautan eskuratu dute txapela. Partidu luzea izan zen eta hasieratik gailendu zen aurkako bikotea. Oro har, Bergarakoek denboraldi ona egin dute hasieratik. Hori ikusita, esperantzarekin joan ziren zapatuko finalera. Hala ere, partiduan aretxabaletarreki izan zuten kontrila une oro.

Luzea bezain gogorra izan zen senior mailako partida. Bergararrak saiatu ziren arren, hasieratik hartu zioten neurria partidari aretxabaletarrek. Muguruza eta Gutierrezek urreratze lortu zuten behin baino gehiagotan baina sekula ere ez aurkariak harpatzeko beste.



Muguruza eta Gutierrez, makurtuta, irabazleekin batera.

AITOR LIZARRALDE

## DENBORALDI ONA

Txapela irabazi ez arren denboraldi ona egin du bikoteak aurren. Hasieran oso partidu onak jokatu zituzten eta horrek finalerako esperantza handiak piztu zizkien. Bukaerarako, ostera, gauzak okertu eta ezin izan zuten finalerako txapela eraman. Aretxabaletarrak arerio latzak direla erakutsi zuten zapatuan ere.

Aipatu beharra dago ere jokatuak partiduetan seniorrek erakutsi zutela mailarik onena.

Zapatuan, halaber, kadete eta gazte mailako finalak jokatu ziren. Kadeteetan Antzuolako taldea iran zen nagusi (17-22) eta gazteetan, ostera, eskoriatzako bikotea (22-18). Bailarako taldeak, beraz, final guztietan irabazle izan ziren. Jokalari onenak, herri guztietako delegatuak hala erabakita honako hauek izan ziren: Mendizabal antzuolarra kadete mailan, gazte mailan Axpe Eskoriatzako atzelaria. Seniorrei dagokienez, Jon Errastiri eman zioten saria.

## TXIRRINDULARITZA

### Lokatzaren Tourreko porran parte hartzeko izenematea domekara arte zabalik

Iaz bezala, aurten ere Tourrerako porra prestatu dute Lokatza Ziklisten Eskolakoek. Antolaketa Nahikari tabernaren laguntza izan du eta taberna horren webgunean aurki daitezke xehetasun guztiak: [www.nahikari.com](http://www.nahikari.com).

Izena emateko epea domekara arte izango da zabalik. Parte hartu nahi duenak zapatuan eta domekan San Martin Plazan izango du izena emateko aukera, 12:00etatik 14:00etara. Porra, halaber, Nahikari, Avenida, Usoa, Maxim's, Zabala eta Aitz Garbi (Antzuola) tabernetan egin ahal izango da.

## FRONTENISA

### Frontenis txapelketako finalerdiak eta finala, zapatu goizean, Angiozarren

Bihar, zapatua, jokatu da Angiozarko frontoian Udaberriko Binakako Frontenis txapelketako finala. Lehen finalerdia 09:00etan izango da eta Candido Hurtado-Jose Izquierdo eta Patxi Vallejo-Xabier Albisua bikoteak izango dira aurrez aurre. Ondoren, 10:00ak aldera, bigarren finalerdiaren txanda izango da. Inaki Sanchez eta Kepa Garciak David Vallejos eta Carmelo Barcalaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Irabazleen arteko finala 12:00etan jokatu da, zapatuan bertan. Aurtengoa txapelketaren zazpigarren ekitaldia izan da eta Deba goien osoko bikoteak izan dira lehian.

## KARATEA

### Shotokan karate taldeak erakustaldia egingo du bihar, zapatua, Ipintza institutuan

Shotokan karate taldeak erakustaldia egingo du bihar, zapatua, Ipintza institutuko aretoan, 17:00etan. Erakustaldian 80 karateka inguruk hartuko du parte. Josean Inarraren taldeak erakustaldia ikustera joateko dei egiten die herritarrei.

# Ana Balentziagak emaitza onak Euskal Herriko igeri txapelketan

J.B.

Marka onak lortu zituen Ana Balentziagak joandako asteburuan jokatuak Euskal Herriko txapelketan. 100 m libreetan bosgarren geratu zen, hain zuzen ere. Era berean, bere markak hobetu zituen Balentziagak. Gipuzkoako txapelketan ere oso lan ona egin zuen. Orduan, Hernanin, laugarren geratu zen, 100 m libreetan.

Asteburuan jokatu zen Tolosan infantil mailako Euskal Herriko txapelketa. Ana Balentziaga bergararra 100 m-tan 5. eta 200 eta 400 m-tan 9. postuan sailkatu zen Tolosan.

Denboraldi bikaina egin ostean oso emaitza onak izan zituen asteburuko txapelketan ere bergararrak. 100 m libreetan bosgarren geratu zen, hain zuzen ere. Era berean, bere markak hobetu zituen Balentziagak. Gipuzkoako txapelketan ere oso lan ona egin zuen. Orduan, Hernanin, laugarren geratu zen, 100 m libreetan.

Kontuan hartzekoa da, gainera, txapelketa oso lehiatsua izan zela. Izan ere, Balentziagaren aurretik sailkatutakoek Espainiako txapelketan hartuko dute parte. Maila altukoa izan zen,

beraz, Euskal Herriko txapelketa. Guztira 40 taldek hartu zuten parte, eta horietako asko Espainiako txapelketara joango dira.

## HURRENGOA ORDIZIAN

Hurrengo hitzordua Ordizian izango da. Bertan jokatu da asteburu honetan junior eta absolutu mailako Gipuzkoako igeri txapelketa. Bergara Igeri Elkartea ordezkatzuz, Ana Balentziagarekin batera, markak hobetzeko prest, Neritzel Albisua, Elixabeth Lascurain eta Nerea Anduaga joango dira.



Balentziaga, Jone Amasorrain, Elisa Kortabarria, Tania Meabe eta Amaia Arraigo.

AMAJA ANDUEZA

**CAMACHO**  
Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24  
BERGARA  
943 76 13 35

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
943 76 20 34

PINTXOAK eta  
OGITARTEKOAK  
SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

**OILAGORRA**  
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61  
BERGARA



# BATXILERGOKO MATRIKULAZIOA

EKAINAREN 1etik 7ra



ESKAINTZA ZABALA ETA ABERATSA  
TALDEKO RATIO TXIKIAK  
BIDE GUZTIAK IREKIAK



HUMANISTIKOA  
TEKNOLOGIKOA  
ZIENTIFIKOA

## Ipintza institutua:

Boni Laskurain 19 • Tel.: 943 76 32 41  
Faxa: 943 76 06 80  
e-posta: 012981aa@hezkuntza.net  
www.goieskola.net/ipintzabhi



IPINTZA  
IKASTETXEA




SEI HILEBETERAKO  
UKIPEN-LENTEEN  
**PACKA**  
MULTILENS GAMA

Pepe Jeans  
LONDON  
**KAMISETA 2 OPARI**

**MULTIOPTICAS**

LEHENAK ZERBITZU OPTIKOETAN



Promozio baliagarria 04/07/01etik 04/08/31ra. Oinarriak notario aurrean utzita daude.

Hau guztia berne: kaxa bi, sei hilebeterako Multilens gamako lenteekin; hiru pote, 360 mi-ko Multilens diseinuzkoak; lenteak eramateko kuboia; eta kamiseta bi, Pepe Jeans markakoak (naska eta mullu)

Ibargarai 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

J. Carlos Guerra 1  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

J.M. Barandiaran Enp.  
Tel.: 943 88 99 88  
**ORDIZIA**

Bidebarrieta 2  
Tel.: 943 20 05 22  
**EIBAR**

Esmalteria Plaza  
Tel.: 943 51 78 11  
**ERRENTERIA**

Mendibil M. G.  
Tel.: 943 63 99 01  
**IRUN**

San Frantzisko 23  
Tel. 943 69 84 70  
**TOLOSA**





2004ko uztaillaren 2a

Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 26. alia

## IEPA LAGUNOK!

San Martzialak! Bi egun besterik ez dira falta. Gehixenok han egongo gara, bertako dantza, bertso lari edota herri kirolak ikusten. Seguruenez zuetako asko ikusiko zaittuet. Ondo pasau eta kontuz horosko-puak esaten dabenarekin!



## URREZKO ARAUAK

- Seguruenez zuetako asko ikusiko zaittuet domekan.
- Dantza egin gabe gelditu zeinke
- Seguruenez zuetako askori ikusiko detsuet.
- Dantza egin gabe gelditu zeinke



## JOLASA

Atxo matxo pillote nere semia errotan handikan datorrela topau zeban erbi bat, bota zotsan harri bat, etara zotsan begi bat, sartu zotsan beste bat, kris, kras kanpora.



## HOROSKOPUA



### capricornio

Ur pistolak gogoko ditzuzula? Domekan eruan San Martzialera, bestela, goititik behera bustiko zaittue.



### leo

Asteburu borobila edukiko dozu, domekan goizian goiz esnatu eta San Martzialera hurbiltzen bazara, egun pasa ederra egin zeinke.



### cancer

Zaindu egizu halako mina emoten detsun hanka hori, San Martzialetan dantza egin barik gelditu zeinke eta.



### aries

Oindio ez ditzuzula euskal dantzak ikasi? Ba, domekarako saiatu zaitte zertxobait ikasten, merezi dau eta.



### libra

Ez egizu horren ozen kantuan egin, astebururako eguraldi ona bihar dogu eta!



### piscis

Lagunen artian onena zarela? Domekan daukazu aukeria, jolasetan zure indarra erakutsi zeinke.



### virgo

Aspertuta zare beti pertsona berberak ikusten? San Martzialen, lagun berriak egiteko aukera ederra edukiko dozu.



### geminis

Zure izateko moduagattik sarituko zaittue. Inguruak pozik agertuko jatzu eta egun pasa ederra egingo dozue.



### aquarius

Asteburuan gurasuak kanpora eruan nahi izango zaittue. Esaiezu San Martzialeko erromerixara juan nahi dozula, lortuko dozu eta!



### scorpio

Osasunez ez zabit oso ondo. Hartu egizuz bihar ditzuzun botikak, domekan osasuntsu egon nahi badozu.



### sagittario

San Martzialak ezagutzen ez daben lagun asko daukazu? Aprobetxatu asteburu hau eta ekarri Bergara aldera.



### tauro

Albiste on batek ezustian harrapatuko zaittu. Saiatu zaitte ahalik eta gehixen gozaten.

## LIBURU GOMENDIUA

**U**lises Cabal, da liburu honen protagonista. Liburu batian egiten dau lan eta misterixuak argitzia gustatzen jako.

Ulises, oraingo honetan, Salamankako ikastetxe batera juango da fantasmaren bat dabilela susmatzen dalako. Ulisesek susmo horrek benetazkuak diren ala ez aztertu biharko dau. Hortik aurrera gauza harrigarriak gertatuko jako. Neri asko gustatu jat kontatzen daben istorixua. Liburuan gertatzen diren gauzak interesgarriak dira, eta misteriozko liburuak gustatzen jakonari liburuak gustatuko jakola pentsatzen dot.

Izenburua: Ikastetxe sorginduko misterioa  
Egileak: Ulises Cabal  
Argitaletxea: Ibaizabal



**MARIAM MORENO**

Mariaren Lagundia Ikastola

6. MAILA

12 urte





# ESKANDINAVIAN zehar zirkuituak

UZTAILEKO Irteerak

8 egun / 7 gau

**FINLANDIA IKUSGARRIA**

HOTELAK \*\*\* / \*\*\*\*

MO/ME

1.374

Ikustekoak: Rovaniemi, Kuopio, Koli, Savonlinna, Porvoo y Helsinki.

**NORUEGA IKUSGARRIA**

HOTELAK \*\*\* / \*\*\*\*

ME/HG

1.394

Ikustekoak: Oslo, Geilo, Bergen, Valle de Voss, Sognefjord, Región de los Fiordos, Crucero Geiranger, Alesund y Trondheim.

**ERREP. ETA BALTIKOKO PERLA EDERRAK**

HOTELAK \*\*\* / \*\*\*\*

ME

1.434

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Báltico y Estocolmo.

**FIORDOETAKO INPERIOA**

HOTELAK \*\*\* / \*\*\*\*

MO/HG

1.524

Ikustekoak: Bergen, Valle de Voss, Región de los Fiordos, Oslo y Copenhague.

**BALTIKOKO ERREPUBLIKAK**

HOTELAK \*\*\* / \*\*\*\*

ME/HG

1.518

Ikustekoak: Vilnius, Riga, Tallinn, Helsinki y St Petersburgo.

**HORIZONTES DE GRANDEZA I**

HOTELAK \*\*\* / \*\*\*\*

HG/ME

1.519

Ikustekoak: Rovaniemi, Kiruna, Parque de Abisko, Islas Lofoten, Vesteralen, Tromso, Fiordos de Lyngen y Ulls, Ctra Atlántica, Alta, Cabo Norte, Karasjok y Lakselv.

**ISLANDIA IKUSGARRIA**

HOTELAK TUR / 1º

HG

1.849

Ikustekoak: Reykjavik, Región de Nordurland, Myvatn, Lago Myvatn, Egilsstadir, Región de Austurland, Región Skaffafellssylur, Skogafoss, Hvalsövellur, Círculo Dorado y Laguna Azul.

## 400 bulego baino gehiago zure zerbitzura

902 108 108 - [viajesiberia.com](http://viajesiberia.com)



BAL-001-MM

ZURE OPORRENGATIK EGIN  
DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU

**GIPUZKOAKO BULEGOA****DONOSTIA**

- Avda. Isabel II, 7 Tel. 943 44 44 90
- Boulevard, 27 Tel. 943 42 73 61
- Churruga, 8 Tel. 943 42 35 50
- Matia, 48 Tel. 943 22 40 89
- Padre Larroca, 7 (Gros) Tel. 943 27 26 00
- San martin, 6 Tel. 943 42 00 71

**ARRASATE**

- Kontzezino Kalea, 18 Tel. 943 71 27 72

**BERGARA**

- Ibargarai, 3 Tel. 943 76 98 70

Irteerak Bilbotik. Prezioak pertsonako logela bikoitzea eta aurretik aipatutako erregimenean, uztaileko egu konkretuentzat bakarrik. Aireko tarifen igoera, tasak bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janari-erregimena: HG, Hotela eta Gosaria; ME, Mantenu Erdia; GE, Guztia Barne. **ESERLEKU MUGATUAK.**

Irteerak  
**BILBOTIK**

# VIAJES IBERIA

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...



ELKARRIZKETA

EDU MURUAMENDIARAZ/AUKERAN DANTZA TALDEKO ZUZENDARIA

# “Euskal dantza tradizionallean bide berriak zabaltzea lortu dugu azken urteotan”

EDU MENDIBIL

**E**du Muruamendiaraz Aukeran dantza taldeko zuzendaria dugu. San Juan egunean, Arrasaten, *Izena duen guztia omen da* euren azken lana aurkeztekoak ziren, baina emanaldia bertan behera geratu zen euriagatik.

**Arrasatera edo Bergarara lana berriz ekartzeko asmorik?**

Pena daukagu Monterrongo emanaldia bertan behera utzi behar izan dugulako. Ziurrenik udazken aldera Arrasateko Amaia antzokian emanaldia egingo dugu eta posible litzateke Bergaran ere eskaintzea. Ikusi behar.

**Zer nolako lana da *Izena duen guztia omen da*?**

Euskal kulturaren antzinako mitoetan oinarritutako ikuskizuna da. Pertsonaia mitologiko batzuk agertzen dira: Mari, Heren-sugea, Gauekoak, Lamiak, Sor-

ginak... Gizakia bere ulermenetik kanpo dagoen guztia argitzen saiatzen da. Ohiko dantzen ikuspegi garaikidea, berritzailea, ikusgarria da lana.

**Badu zerikusirik *Sutargi* zuen lehenbiziko lanarekin?**

Biak euskal dantzetan oinarritutako lanak dira, baina azken honetan dantza nahasketa gehiago dago. *Sutargi* baino ikuskizun landuagoa eta borobilagoa dela esango nuke.

**Musikak ere presentzia nabarmena du, ala?**


Bai, garrantzi handia ematen diogu zuzeneko musikari. Hamar dantzariokin batera, bost musikaririk hartzen dute parte. Abesti batzuk euskal musikariak dira (Amaia Zubiria, Pascal Gaigne, Kepa Junkera...), beste batzuk tradizionalak dira eta beste batzuk musikariek eurek sortuak. Bestalde, jantziak ere oso garrantzitsuak dira. Ramon Garcia diseinatu ditu.

**Zu zeu koreografia ardura-duna zara. Zela izan da sortze prozesua?**


Garbi Losadak eta Jose Antonio Vitoriak egindako gidoiaren arabera, musika lortzen hasi ginen. Hauxe da zatirik zailena. Musika egokiak aukeratu ondoren, koreografiak lantzen hasi nintzen. Koreografiak, nolabait, zentzua ematen die pertsonaiei. Sortze prozesua luzea izaten da. 10-11 hilabete egon gara.

**Aukeran taldeak zazpi urte egin ditu dagoeneko. Zein balantze egiten duzue?**

Oso positiboa. Ikuskizun bi egin ditugu eta ia-ia Euskal Herri osoko antzokietan dantzatu dugu. Euskal dantzen ikuskizuna areto horietara eramatea ezinezkoa zirudien. Euskal dantza tradizionallean bide berriak zabaltzea lortu dugu eta jendeak erantzun ona eman digu. Ea posible dugun 2006. urterako beste muntaia indartsu bat egitea.



ARTXIBDA



## Kantu saioa gaur Mariaren Lagundian

Bergarako Orfeoia eta Musika Eskolako kantu eta hari taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 20:30ean. Kantu ikasleek Mozart, Pergolesi, Aita Donostia eta Haydn-en lanak eskainiko dituzte. Jarraian, David Azurtzaren (irudian) zuzendaritzapean, Orfeoia, kantu eta hari taldeen laguntzaz, *Membra Jesu Nostri* izenburuko pieza abestuko dute. Biolin, biolontxelo eta organo joleek ere hartuko dute parte gaurko emanaldian.

## LABUR

### Electric Eel Shock eta Surfin' Kaos Jamen eta G-3 jirako kontzertua Musakolan, gaur

Electric Eel Shock eta Surfin' Kaos taldeek kontzertua emango dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Electric Eel Shock taldeak *Go Europe!* bere azken diskoa aurkeztuko du. Kontzerturako sarrerak 16,60 eurotan daude salgai. Bestalde, Steve Vai, Joe Satriani eta Robert Fripp gitarra joleen G-3 jira Arrasateko Musakolako kiroldegian izango dira gaur, egubakoitza, 22:00etan.

### Lau talderen kontzertua antolatu du Bergarako gaztetxeak biharko, zapatarako

Sklerosis, Banda Munizipala, Golpe de Estado eta Reston Sobres taldeen kontzertua izango da bihar, zapatua, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

Bestalde, gaztetxeak *Astindu* fantzinearen [www.astindu.org](http://www.astindu.org) webgunea abian jarri du. Hainbat ataletan sailkatuta, *Astindu* fantzinean landutako erreportajeak, elkarrizketak eta bestelakoak azaltzen dira webgune horretan.

**Mujika**  
gozotegia



Bizkotxoak  
Erreilenoak  
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**  
943 76 10 34

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

**ANGIOZAR**  
Tel.: 943 76 55 74



Bergara Errehabilitazio  
Fisioterapia Zentroa

MASAJEAK ETA  
ERREHABILITAZIOA

Hitzartutako aseguru berria:



Matxiategi 5  
Tel.: 943 76 02 03/76 25 70




**GAZTELU**  
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze elizatako horman dago esaldi hau?

GALDEDEBALDE

- |   |  |  |
|---|--|--|
| <p><b>1.</b><br/>Zein taldek irabazi du Jardun euskara elkarteak antolatutako Olinpiada?</p> <p>A/ Kalimeroak.<br/>B/ Iratxoak.<br/>C/ Kuxki.</p> | <p><b>2.</b><br/>Zein izan zen Bergarako onena Quebrantahuesos txirrindulari proban?</p> <p>A/ Jose Luis Taboada.<br/>B/ Arkaitz Ruiz de Loizaga.<br/>C/ Felix Igarza.</p> | <p><b>3.</b><br/>Zein da Aukeran dantza taldearen azken lana?</p> <p>A/ Sutargi.<br/>B/ Izena duen guztia omen da.<br/>C/ Dantzara, plazara.</p> |
|---|--|--|



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANE ARENAZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ane!

Galderen erantzunak: Bonofotoa: Esperantza / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....


Evax Ultra konpresa

Poltsa

2,36 €

393 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTIBOIA

San Pedroko 19. zenbakian jaio zen Muxika.

BERGARAROSPETSUAK

Nikolas Muxika (eta 2)

KOLDO PEREIRA

Madrilgo Arte Ederren Nazioarteko Erakusketan hartu zuen parte (1926-1932). 1936-39 urteen artean, bestalde, lan garrantzitsu bat egin zuen: Donostiako Karmeldarren Elizaren pintura-dekorazioa, hain zuzen. Muxikaren obrari buruz Cabanas Oteiza, Dunixi, Iñigo de Andia, Jose Frances, Adolfo Larrañaga eta Juan de la Encina idazle handiek idatzi zuten, besteak beste. Muxikaren pinturan Cabanas Oteiza, Dionisio Azkue eta Artetarekiko harreman sintomatikoa antzeman daiteke. Aldi berean, kutsu liberala, autodidakta eta herrikoia dario bere lanari, eta eklektizismo guztietatik aske dago horri esker. *Eguzki sarrera Getarin, Isaspimendi, Aizkorri gaiñak, Aloñamendi* eta batez ere *Isaspi* izenburuko paisaiek Muxikaren izaera poetiko eta sotila adierazten dute, malenkonía liriko handiko ezusteko uneak lortuz. Dunixiren arabera, margolari fin eta zorrotza dugu, eta, topiko errazetatik ihesi, azkenean bilatzen duen harmonia lortzen du.

Nikolas Muxika 1948ko martxoaren 1ean hil zen, Donostian.

*Muxikaren paisaiek egilearen izaera poetiko eta sotila adierazten dute*

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 BERGARA 943 76 53 12



ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

# Kalebarrengo jaietan, Antiguán

**K**alebarrengo San Pedro jaiak ere joan ziren, eta San Martzial jaien txanda iritsi zaigu. Hainbat ospakizun egongo da oraingo asteburuan Lizarragan. Oraingo asteen, 1951. urteko Kalebarrengo San Pedro jaietan ateratako argazki bat dakarkizuegu. Argazkia, baina, ez dago Kalebarrenean aterata, Antiguako ermitaren aurrean baizik.

Kalebarrengo San Pedro jaietan sokatiran ibili zen herriko mutil koadrila bat, eta badirudi txistulariekin batera kalejiran joan zirela Antiguaraino, eta hantxe aterata zuten honako argazkia.

Hona hemen argazkian azaltzen direnak, goiko ilaran, ezkerretik hasita: Zipriano Pildain, Jose Joakin Zubillaga, Enrique Jauregi, Gerbasio Legorburu, Fernando Azkarate, Luis Azkarate eta Francisco Etxaniz.

Erdiko ilaran, ezkerretik hasita: Julian Iparragirre, Felix Agirre, Jose Igartza, Manuel Garitano, Jeronimo Zabalo eta Julian Garitano.

Behoko ilaran, berriz, honako hauek ikus ditzakegu: Jesus Agirre, Goio Arbulu, Jose Luis Fernandez de Arroiabe, Maximo Aristi, Jose Mari Larrea, Esteban Fernandez de Arroiabe eta Migel Gabilondo.

Eskuman, azkenik, neska bat ageri da: Mari Luz Agirre da bera.

Argazkia: Jesus Agirre



### ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

# ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

# GOIERRI

## AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

# KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA



# POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara



# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko uztailearen 2a / 208. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Debarroko txapelketa irabazi dute kadeteek

AINTZANE IRIZAR

Zapatu arratsaldean jokatu zituzten, Eskoriatzan, Debarroko pilota txapelketako finalak. Kadete mailan, Aitor Jauregi eta Aitor Mendizabal antzuolarrak irabazi zuten txapelketa. Hain zuzen ere, Elgoibarko bikotearen aurka jokatu zuten finaleko partidua.

Debarroko txapelketa irabazi eta Antzuolara ekarri zuten txapela Aitor Jauregi eta Aitor Mendizabal kadete mailako pilotariak. 22 eta 17, hain justu, irabazi zuten Olaldekoek, Elgoibarko Lagunak pilota elkarteko Portu eta Txurrukaren aurka.

*Alebin mailako pilotariak bigarren geratu dira eskola arteko Debarroko txapelketan*

Urduri samar hasi zuten partidua Jauregik eta Mendizabalek, baina, pixkanaka euren jokoa hobetzean joan ziren. Lehendabiziko zatian, nahikoa parekatua izan zen partidua. 13na jarri zirenetik aurrera, baina, hautsi egin zen partidua eta antzuolarrak jarri ziren aurretik, 19 eta 13. Elgoibarreko bikoteak 17 tanto egin zituen, azkenean.

Debarroko finalera heldu aurretik, lan bikaina egin dute antzuolarrak txapelketan osoan zehar. Lehendabiziko fasea Debagoieneko bikoteek jokatu zuten euren artean; kadete mailan, antzuolarrak lehendabiziko postuan sailkatu ziren, Debagoienan. Horrela, finalerdietarako sailkatu ziren, bigarren faserako, hain zuzen ere.

Finaleko partidua Jauregik eta Mendizabalek jokatu zuten arren, hiru pilotarik jardun dute txapelketa horretan; eurekin batera, Asier Longaresek hartu du parte. Bestalde, senior mailakoak txapelketatik kanpo geratu ziren lehenengo fasean.



Asier Longares, Aitor Mendizabal eta Aitor Jauregi trofeoekin eta txapelekin.



Ezkerretik hasita, Etxaniz, Iparragirre, Madariaga, Narvaez eta Zabalo.

Gogoratu behar dugu, bestalde, Aitor Mendizabalek, eskuz banaka ere lan oso ona egin duela aurren: ETB Kantxa txapelketan, final-laurdenetara iritsi zen.

### ALEBINAK ERE BIKAIN

Eskola arteko txapelketan ere lan bikaina egin dute Antzuolako pilotariak. Bigarren sailkatu dira

alebin mailako pilotariak Debarroko txapelketan; Bergara izan da txapelketa.

Kepa Etxanizek, Iñigo Iparragirrek, Jon Madariagak, Andoni Narvaezek eta Andoni Zabalok hartu dute parte txapelketa horretan.

Aurreko astean jokatu zituzten finaleko partidua Oñatin.

## LABUR

### Gertu Gaek Udalaren proiektuen gainean duen iritzia azalduko du martitzenean

Azkeneko asteotan, Udalak hainbat proiektu aurkeztu ditu hainbat herritarren aurrean. Gertu Gae taldeak proiektu horien gainean eta errekaren desbideraketa proiektuaren gainean duen iritzia azalduko du martitzenean, hilak 6, 19:00etan, udaletxean.

### Udaleko Hirigintza Sailerako administrari laguntzailea aukeratu dute dagoeneko

Ekainaren 16an izan zuten azkeneko froga Udaleko Hirigintza Sailerako administrari laguntzaile lanposturako aurkeztu ziren lagunek. Azkenean, Markel Azkargorta bergararrak eskuratu du lanpostu hori; berak dihardu postu horretan lanean azkeneko urteotan. Guztira, 118 puntu eskuratu ditu Markelek; Garbiñe Arrizabalaga geratu da bigarren, 84 punturekin.

### Erretiratuen Eguneko bazkarirako txartelak erosteko azkeneko eguna, gaur

Datorren asteko domekan, uztaileak 11, ospatuko dute Erretiratuen Eguna. 11:30ean, meza izango dute, hildako lagunenean alde. 14:00etan, bazkaria egingo dute, Herri Ikastetxeko jolastokian; ondoren, erromeria izango dute. Bazkarirako txartelak erosteko azkeneko eguna, gaur, egubakoitza, da. 18:00etatik 19:00etara erretiratuen elkarrean izango dituzue salgai txartelak.

### Kalebarrengo jaietako zozketan, 482 zenbakidun txartela izan da irabazlea

Kalebarrengo jaietako zozketan, 482 zenbakidun txartela izan da irabazlea. Kalebarrengo jatetxe baten lau lagunendako afaria da zozketako saria. 15 eguneko epea dago txartela aurkezteko. Azaltzen ez bada, 1.804 zenbakidunari emango zaio saria. Antolatzaileak pozik azaldu dira jaiak izan duten arrakastarekin; herri afarian, esaterako, inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte.

### Adolfo Arejita euskaltzain berriak Antzuolako dotrina argitaratu zuen

Adolfo Arejita bizkaitarra dugu euskaltzain berria aurreko asteetik; hil berri den Andolin Eguzkitzaren tokia hartu du berak. Arejita badu Antzuolarekin loturarik; izan ere, 1985ean, *Amilletaren Dotrina* eman zuen argitara, Mirari Alberdi bergararrekin batera. Dotrina hori antzuolarrez idatzita dago, eta 1678. urtekoa da; badirudi Amilletako seme batek idatzitakoa dela.

### Gurutz Madariaga zinegotzia dimisioa aurkeztekoa zen gaurko osoko bilkuran

Gaur, egubakoitza, egitekoak ziren uztaileko osoko bilkuran, Gurutz Madariaga EAJ-EA koalizioko zinegotzia dimisioa aurkeztekoa zen.

Iazko maiatzeko udal hauteskundeak eta gero, ekainaren 14an hartu zuten kargua zinegotziak. EAJ-EA koalizioak ofizialki zortzi zinegotzi lortu zituen arren, bostek besterik ez zuten kargua hartu; Madariagak ez zuen kargurik hartu. Azkenean, iazko urriko osoko bilkuran hartu zuen zinegotzi kargua.






# Herriko enpresak elkartu dira euskara bultzatzeko

AINZANE IRIZAR

Martitzenean, hilak 29, herriko hiru enpresa nagusietako ordezkariak (Goizper, Elay eta Matz-Errekakoek) batzarra egin zuten, euskara planak indartzeko helburuarekin. Hauxe izan da lehendabiziko batzarra eta euren asmoa da elkarlanean jarraitzea.

Hiru enpresek dituzte euren euskara planak. Orain arte, baina, bakoitzak bere kasa jardun du lanean euskarari dagokionez. Hasi berri dituzten harreman hauekin, enpresetako arduradunen helburua da bata bestearen berri izanda eta euren esperientziak elkar trukatzeko, euskara planak aberastea.

Martitzeneko batzarrean parte hartu zuten hiru enpresetako euskara batzordeetako ordezkariak; batzarraren lehen zatian, enpresa bakoitzeko ordezkariak euren euskara planen berri eman zuten: noiz jarri zuten martxan, ze ekintza egin dituzten eta egin duten lan horrekin zelako emaitzak lortu dituzten azaldu zuten, besteak beste.



Enpresa bakoitzeko ordezkariak euren euskara planen berri eman zuten.

Bigarren zatian, berriz, hainbat lantalde osatu zuten, euskara planak martxan jartzekoan izaten dituzten arazo eta kezken gainean jarduteko.

Enpresetako ordezkariak gain, Udaleko arduradunak ere egon ziren batzarrean: Iñigo

Ramirez de Okariz Kultura eta Euskara batzordeko burua eta Lierni Legorburu Udaleko euskara teknikaria, hain zuzen. Idolazko kideak ere egon ziren. Martitzenekoa lehenengo urratsa besterik ez zen izan; euren asmoa da elkarlanean jarraitzea.

## JAIAK

# San Martzial jaiak asteburuan, Lizarragan

AINZANE IRIZAR

Eguaztenean, hilak 30, izan zen San Martzial eguna; hainbat ospakizun izan zituzten egun horretan Lizarragako auzotarrek. Oraingo astebururako ere ekitaldi ugari antolatu dituzte, urtero bezala: umeendako jolasak, afaria, erromeria, dantzarien saioa, txokolate jana...

Eguaztenean, San Martzial egunez, hasi zituzten ospakizunak Lizarraga auzokoek, eta oraingo astebururako ere ekitaldi ugari antolatu dituzte. Zapatuan, hona hemen San Martzialen egongo diren ekitaldiak: 16:30ean, herri mailako plater-tiro txapelketa jokatuko dute; 17:00etan, umeendako jolasak egongo dira; 18:30ean, berriz, txokolate jana egongo da; 20:00etan, trikitilariak jardungo dute, giroa alaitzen, eta ondoren, 21:00ak inguruan, auzo afaria egongo dute. Afalostean, berriz, 23:00etan, hain zuzen ere, erromeria egongo da, trikitilariak. Goizaldean, azkenik, 01:00etan, San Martzialgo zaku lasterketa jokatuko dute.

Domekan ere ekitaldi ugari egongo da; 11:00etan hasiko dituzte ekitaldiok, txistularien diariarekin. 11:30ean, Peña Aiestuik antolatutako azkeneko txirrindulari igoera jokatuko dute; 12:00etan meza nagusia egongo dute, Antzuolako abesbatzarekin. Ondoren, salda banatuko diete joaten diren guztiei, eta erretiratuendako, berriz, lancha egongo da. 13:00etan, Peña Aiestuiren bizikleta frogan sariak banatuko dituzte, eta ondoren, herriko dantzarien saioa egongo da. 17:00etan, erromeria egongo da, Jon Gardokirekin; 21:00etan amaituko dira jaiak, etxafuego jaurtiketarekin.

### HERRIKO JAIETAKO EGITARAU, PREST

Udaleko arduradunek zehaztuta dute dagoeneko herriko jaietako egitaraua. Aurreko urteetako jaiekin alderatuta, hainbat berrikuntza dakartzate aurtengo jaiek.

Besteak beste, txosnek toki berria izango dute aurten: Zurra-egin jarriko dituzte. Bestalde, domekan ez da herri bazkaririk egongo; horren ordez, afaria egongo da zapatuan Zurraegin, txosna batzordeak antolatuta.

## HERRITARRENHITZA/Iraia Gabilondo · Ikaslea

# Maputxeak, salbuespena?

Hainbat mende luzeetan barrena, Txileko lurraldea hainbat herri ezberdinez osatua egon da. Erdialdean eta hegoaldean maputxeak bizi izan dira, bertako baliabide natural ugari baliatuz. Herri honen ahozko tradizio bidez iritsi zaigun informazioa dela eta, nabaria da bertako giza-antolakuntza nahiz antolakuntza politikoa ez-zentralizatua erabiltzen zutela.

XVI.mendean, espainiar konkistatzaileak iristean, erabateko aldaketa jasango zuten bertako biztanle ziren maputxeak. Hauek, bertako herritarrak izaki, hainbat gudetan

parte hartu behar izan zuten beraien zena defenditu ahal izateko. Hau gutxi balitz, Europatik konkistatzaileek eramandako gaixotasunak zirela medio, hamarkada gutxiren buruan lurraldeak bere benetako nortasuna galdu zuela esan genezake.

Ondoren txiletar estatuaren eraketa eman zen, ordura arte maputcheen esku zeuden lurrak ejerzitoak bereganatu zituen



"Historia behin eta berriz errepikatzen da eta ez du inolako mugarik"

eta europar kolonoei eman zitzaizkien. Egindako sarraski hau nolabait justifikatzeko asmotan lege batzuk egin zituzten espresuki. Lege hauen ondorio izan zen indigenen lurrak modu harrigarri batean gutxitzea, beraien lurralde izan zenaren % 6 bakarrik mantendu ahal izan zuten, beste

te lur zatietatik kanporatuak izan baitziren.

Kulturaren ikuspegitik

aztertuz, estatuaren helburu nagusia bertako indigenak txilenizatzea zen, txiletar hizkuntza, erlijio eta ohiturak inposatuz; beraz, estatuaren ekintza izan zen maputche eta beste hainbat giza talderen diskriminazio bortitza.

Argi eta garbi ikus genezake historia behin eta berriz errepikatzen dela eta ez duela inolako mugarik. Hemen maputche izena ikus genezake, baina ziur nago izenik aipatuko ez banu irakurle bakoitzak munduko bazter ezberdinetan gertatzen den errealtatearekin lotuko lukeela, maputcheena ez baita izan salbuespena.

## LABUR

### KZGunea itxita egongo da irail hasiera arte

KZGunea itxita egongo da uztailaren eta abuztuaren irailaren artean, berriz, berriro zabalduko dute. Iazko otsailetik dago zabalik KZGunea Olanaren etxean. Hasieran, egunero egoten zen zabalik. Orain dela hila-bete batzuetatik hona, berriz, egubakoitz arratsaldetan bakarrik egon da zabalik, 16:00etatik 20:00etara, hain zuzen ere.

Irailetik aurrera ere aste-oro zabalduko dute, eta ikastaroak egiteko aukera egongo da.

**LARREA**  
TABERNA  
Kalebarren 17  
ANTZUOLA

*Tomas Gezalaga*  
Zoruen kutxilatua eta bernizatzea  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*  
Apainketarako eta industriarako pinturak  
Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak  
Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak  
Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40



# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko uztailaren 2a / 192. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Patxi Basauri alkateak sinatu zuen akordioa Gipuzkoako Foru Aldundian martitzenean.

NAGORE GARCIA DE BIKUÑA

## Laguntza hitzarmena gizarte zerbitzuetarako

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Elgetako Udalak eta Gipuzkoako beste hiru udalek lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuarekin. Helburu nagusia landa eremuko zentro balioanizdunen bitartez adineko ezinduei laguntzea da.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuak lankidetzaren hitzarmena sinatu du aste honetan hainbat udalekin, tartean Elgetakoarekin. Hitzarmen horren helburua da herri horietan kokatutako landa eremuko zentro balioanizdunen bidez adineko ezinduei laguntza ematea.

Hitzarmena Diputazioak herri txikietan gizarte zerbitzuak hobetzeko duen Hurbiltzen izenburuko planean sartuta dago.

Udalekin hitzarmenok sinatu ostean, Esther Larrañaga Gizarte Politikarako foru diputatuak poza adierazi zuen, "administrazio ezberdinen lanari" esker hitzarmenak sinatzea posible izan delako.

"Hitzarmen horiek pauso handia dira herri horietako adineko ezinduentzako laguntza hobetzeko, kalitatezko laguntza jasoko baitute, beren behar zehatzei egokitutako baliabideen bitartez, eta etxetik gertu, gainera. Pauso bat gehiago ematen ari gara landa eremuko biztanleok, eskubideak ziurtatuta edukitzeko, eta laguntza baliabideen kalitateari dagokionez, herri txikietan aspalditik egon den eskasia gainditzeko joateko", esan zuen Larrañagak.

### ELGETAKO ZENTROA

Eguneko zentroa eta babestutako etxebizitzak daude guneotan, eta asteon sinatutako akordioek eguneko zerbitzuan dute eragina. Babestutako etxebizitzaren ardura, berriz, Udalarena da.

*Elgetako zentro balioanizduna datorren uztailaren 16an inauguratuko dute*

Esther Larrañagak esan zuenez, "tokian tokiko beharrei egokituta egin dira zentroak; udalerrri bakoitzean ikusitako eskariaren arabera planifikatuak".

Uztailaren 16an inauguratuko duten Elgetako zentro balioanizdunaren ardura Udalak izango du. Eguneko zentroan zazpi plaza egongo dira eta babespeko etxebizitzan, berriz, hiru lagunendako tokia izango da.

Babespeko etxebizitzak erai-kindaren beheko solairuan dago kokatuta, eta 75 metro koadro ditu. Bertan, banakako hiru gela, sukaldea, bainugela geriatrikoa eta guztiendako eremu bat egongo dira.

Eguneko zentroak ere 75 metro koadro ditu eta guztiendako eremua eta bainugela geriatrikoaz gain, bulegoa, biltegia eta garbiketara gela izango ditu.

Zentro balioanizduna egiteak 143.637 euroko kostua du eta Foru Aldundiaren ekarpena %47koa da. Gizarte Politikarako Departamentuak 30.000 euroko ekarpen ekonomikoa egingo du urtero zentro balioanizduna mantentzeko; etxebizitzak babestutak, berriz, Udalak finantzatu ditu.

## MUSIKA

### Herriko musika ikasle gazteen kontzertua

I.A.

**Musika doinuak entzungo dira Elgetan datorren egunean. Herriko musika ikasle gazte txoek kontzertua eskainiko dute Espaloian. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta musikari gazte txoek ikasturtean landutako kantuek jendarean joko dituzte.**

Kurtso osoan zehar musika ikasten jardun ostean, ikasitakoak jendarean erakusteko aukera izango dute herriko musikari gazte txoek. Orain dela lau urte inguru egin zen azken aldiz horrelako emanaldi bat herrian, eta aurten Elgetako musikari gazte txoek elkartuta eta berriz egitea pentsatu dute.

Horretarako, ikasturte amaierako kontzertua antolatuko dute. Emanaldia datorren egunean, hileren 8an, izango da, 20:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

### HAINBAT MUSIKA TRESNA

Kontzerturako egitarau zabala gertatu dute, eta hainbat musika tresna entzuteko aukera egongo da bertan.

Pianoan Ibane Zubiaurrek, Maitena Mañarikuak, Nora Ugarteburuk, Iñaki Beristainek eta Janire Lazkanok jardungo dute.

Aitor Gorostizak eta Ane Elortzak gitarra doinuak ekarriko dituzte. Adrian Gorostizak eta Janire Lazkanok soinua joko dute. Iraitz Lazkanok, berriz, zeharkako txirula eta txistua joko ditu.

Bestalde, trikitilari eskolako ikasleek soinua joko eta panderoa astinduko dute, besteak beste, fandangoa, arin-arina eta biribilketak joaz.

Benito Lertxundiren *Erribera* edo Itoiz taldearen *Lau teila* bezalako kantuekin batera musika klasikoko beste hainbat doinu entzungo dira; Mozart eta Beethoven-enak tartean.

Kontzertu horrekin, urte guztian egindako lana alferrikakoa ez dela izan erakutsiko dute ikasleek. Elgetan bertan eta Bergaran jaso dituzte eskolak, eta urei erakusten jardun duten irakasleak honako hauek dira: Angel Agiriano, Adolfo Jainaga, Cristina Larrañaga, Lorea Larrañaga, Jose A. Ordoñana, Elena Perez eta Amaia Urdangarin.

## LABUR

### Domekako antzezlanak aldatu egin dute eta "Biblia osoa... gutxi gorabehera" izango da

"Shakespeare osoa... gutxi gorabehera" izeneko antzezlanak ziren egitekoak jaietako azken egunean, baina aktoreetako batek istripua izan duela eta, "Biblia osoa... gutxi gorabehera" lana eskainiko dute Txalo Producciones eta Kanpingagsekoek. Antzerkia 22:30ean izango da Espaloia Kafe Antzokian eta taula gainean Joseba Apaolaza, Patxi Barco eta Asier Hormaza aktoreak egongo dira.

### Eskulanak ipiniko dituzte jaietan ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan

Ikasturtean herriko hainbat lagun eskulanak egiten ibili dira, eta eurek egindako lanak ikusgai ipiniko dituzte kultura etxean jaietan. Egurra, letoia eta beste material batzuk erabili dituzte, eta aurtengo berrikuntza beira izan da. Bestalde, altzariak zaharberritu egin dituzte, eta haiek ere erakusketan egongo dira. Egunenetik zapa-tura bitartean 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta domekan goizeko ordutegian bakarrik.



KIROLA

# Apezetxea-Narbarte eta Arretxe-Zapirain ETB Kantxa txapelketako finaletan domekan

I.A.  
ETB Kantxa pilota txapelketa iritsi da amaierara. Domeka honetan jokatuko dira finalak Udaltzako Pilotalekuan, 12:00etan hasita. Kadete mailan Apezetxeak eta Narbarteak jardungo dute; 23 urtez azpikoetan, berriz, Arretxe eta Zapirain izango dira aurrez aurre.

ETB Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketako finalak domekan izango dira jokoan.

Eguerdiko hamabietan kadete mailako pilotariak irtengo dira kantxara. Apezetxea eta Narbarte goizuetarako izango dira aurrez aurre. Antolatzaileek esan digutenez, Apezetxea da maila horretan txapelketa irabazteko faboritoa. Izan ere, "iaz bera izan zen

txapelduna Elgetan, eta pilotari konpletoa izanik aurten ere txapelketa polita egin du", esan digu Juan Luis Uberak. Gertatzen dena gertatuta ziur dagoen gauza bakarra da kadete mailako txapela Goizuetara joango dela.

**PARTIDU OREKATUA**

Haien ostean, 23 urtez azpikoek jardungo dute. Arretxe nafarrak eta Zapirain gipuzkoarrak. Partidu horretarako ez dago faborito argirik. Juan Luis Uberaren esanetan, "biak dira pilotari gogorak eta edozeinek irabaz dezake, nahiz eta orain arte sekula ez diren izan ez bata eta ez bestea Elgetako finalean".

Finaleko partiduak grabatu eta telebistaz emango dituzte domeka arratsaldean, ETB1en, 17:00etan.



Apezetxea, iazko txapelduna (behean eskuman), aurten ere finalean izango da.

LABUR

## Udalak eta bertako langileek akordioa egin dute

Hiru barikutan jarraian, Elgetako Udaleko langileek ordu eta erdiko geldialdiak egin dituzte lan hitzarmena negoziatzeko eskatzeko. Udal langileak eta ordezkariak negoziatio mahaian eseri, eta Elgetako langileek egindako eskariak onartu egin ditu Udalak. Hain zuzen ere, langileek soldataren %3,2ko igoera izango dute eta igoera hori urtarriletik honako soldatetan ere egingo da. Bestalde, hiru langilerendako, garbitasun lanetan jarduten dutenendako, lan mailaketan aldaketa eskatu zuten, eta horrela, mailaz igotzea adostu dute, baina aldaketa hori aurten gorako baino ez da izango. Egoera nola dagoen ikusita langileek ados azaldu dira hartutako erabakiarekin.

JAIK

# Dantza solteko txapelketan hamabi bikote izango dira lehian

I.A.

Orain dela urte asko egin zen azken aldiz Elgetan dantza solteko txapelketa, eta aurten, Jai batzordeak berriz ere antolatzea erabaki du. Dantza saioa jaietako domekan izango da plazan 18:00etan-hasita. Txapelketan 16 urte arteko dantzariak hartuko dute parte. Guztira, hamabi bikotek eman dute izena, tartean Atarrabiako bi bikote izango direlarik. Partaideen artean Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza elgetarrek osatutako bikotea ere izango da, eta herritarren aurrean euren maila erakutsiko dute. Elgetan ez ezik udan beste hainbat herritan ere jardungo dute.

**ARIN-ARINA ETA FANDANGOA**

Dantzari gaztetxoek, epaimahailo lagunaren aurrean, arin-arina



ARTXIBOA

Hiart Bolinaga eta Andoni Elortza elgetarrek jardungo dute txapelketan.

eta fandangoa dantzatu beharko dituzte Adolfo Jainaga trikitilari eibartarraren doinuak lagun dituztela.

Lehenengo hiru bikoteek garaikurra eta diru saria jasoko dute. Baita 12 urtetik beherako lehen bikoteak ere.



## Añiketan areto futboleko txapeldun

Elgetako Areta Futbol Txapelketako finala izan zen jokoan joan den zapatuan. Añiketan eta Vicios izan ziren aurrez aurre, eta Arrasateko Añiketan taldeak irabazi zuen partidua: 5-2 izan zen emaitza. Partidua lehen zatian irabazi zuten arrasatearrek; hiru gol egin zituzten bat ere jaso gabe. Beraz, iazko garaipenari eutsiz aurten ere Añiketan izan da txapeldun./I.A.

## SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



## PANA DE ROKUA TATETXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL.: 943 76 82 73

JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA.

Goibekokale



# ILE APAINDEGIEN GIDA

BERONIKA JAUREGI/ ILEAK ILE APAINDEGIKOA

## 'Bartzelonara noa Llongueras-Center ile mozketara eta kolore ikastaroa egitera.'

### Zenbat urte daramatzazu orrazten?

Lanean zazpi urte daramatzat. Ikasketak bi urtean egin nituen eta beste urtebete kanpoan egon nintzen, lanbidea hobeto ikasten, perfektionatzen.

### Moda jarraitzen duzu?

Bai, noski. Lanbide honetan moda jarraitzea oso inportantea da. Urteik urtera eta sasoi batetik bestera, orrazkerak, ilea mozteko erak eta joerak aldatu egiten dira. Madrilan eta Bartzelonan urtero egiten diren nazioarteko erakustaldietara joaten naiz. Ikastaroak ere egiten ditut; orain, adibidez, Bartzelonara noa Llongueras-Center ile mozketara eta kolore ikastaroa egitera.

### Zer-nolako bezeroak dituzu?

Adin guztietako bezeroak ditut; gazteak eta nagusiak, emakumezkoak eta gizonezkoak.

### Bezeroek ondo zaintzen dute ilea?

Bai, gaur egun jendeak garrantzi handia ematen dio ilea ondo edukitzeari, ilea hobeto edukitzeko zer egin behar duten galdezen dute. Orrazkera eta kolorea sarritan aldatzen dituzte.

### Bezeroak ideia garbiekin etortzen dira?

Denetarik dago. Pertsona nagusiak normalean garbi edukitzen dute zer nahi



Beronika Jauregi Ileak ile apaindegiko jabea.

duten. Dena dela, ideia garbiekin etortzen denari ere ideia berriak ematen diet eta batzuetan aldatzera animatzen dira. Gazteek aholkua eskatzen dute, askotan ez dakite-eta zer egin nahi duten. Gazteen artean ausartak direnek modako koloreak eta orrazkerak eskatzen dituzte.

### Ile apaindegia bakarrik ala beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzu?

Ile apaindegiaz gain, makillajea, manikura eta aurpegiko depilazioa egiten ditut.

ileak

Ozaeta 3 - Bergara  
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orrazkerak

## Aukera onenak

ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara  
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

AMPARO  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA

Boni Laskurain 2 - Bergara  
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérestase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangardia lanak

BEROTZI

PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara  
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

disdira

ileapaindegia

Masterreka 7 - Bergara  
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

IDOLA

Espoloia 4 - Bergara  
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruzal garbitzea
- Solariuma

IZARRA

San Pedro 23 - Bergara  
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutexekin

KIZKUR

Bôlu 51 - Bergara  
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara  
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

Ibargarai 42 - Bergara  
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutexekin

Pepelu

Zurradero 2 - Bergara  
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Sanchez

Fraiskozuri 4 - Bergara  
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea